



2023SPLE0013  
13.bilera: OHIKOA 2023/11/29

## UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2023/13

EGUNA: 2023/11/29

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:50

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

### **BERTARATUAK:**

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

### **EAJ-PNV udal taldea**

Asier Urain Buenetxea.

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbietta Egaña.

### **EH Bildu udal taldea**

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Oihana Irusta Lazkano.

Aritz Larrañaga Unanue.

Edurne Aristi Careaga.

### **Orain Deba udal taldea**

Isidro Aristi Oruezabal.

**Idazkaria:** Jose Luis Salaberri Iñarra.

## **ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.**

Hasi baino lehen alkateak proposatzen du gaurko bileraren gai zerrendan sartzeari urgentziarako puntu gisa SAREk aurkeztutako mozioa, Konponbiderako Giltzak manifestuaren buruzkoa. Gai hau zerrendan urgentziaz sartzeko arrazoia da SAREkoek mozioa erregistratu zutela gaurko bilerarako deialdia bidali zen egunean bertan, eta ez zen astirik izan gai zerrendan sartzeko. Hala ere, egokia jotzen da gaia gaurko bileran aztertzea, hurrengo saioari itxaron gabe.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du gaia osoko bilkura honetan aztertzea.

### **1.- Aurreko bilkurari dagozkion akta onartzea, hala badagokio.**

2023ko urriaren 26an, egindako osoko bilkuraren akta Udalbatzari aurkeztu zaizkio, onar dezan.

Gilen Garciak adierazten du 8.3 puntuan akats txiki bat dagoela eta gero komentatuko duela idazkariarekin hori zuzentzeko. Bestalde puntu horretan jasotzen dela zer erantzuna eman zitzaie, baina informazioa eskatzen zutela, eta hori ez zutela jaso, eta bigarrenik, Udalaren Youtubeko kanalean, aurreko bilkuraren bideoa, urriaren 26koa, igo zen plataformara azaroaren 21ean, ia-ia, hilabete beranduago, eta konpromisoa hartu zela bideoa lehen bai lehen igotzeko, eta ez dakitela ea arazo teknikoren bat egon ote den edo zer gertatu den,

Alkateak erantzuten du arazo tekniko bat egon zela sarbiderako klabeak direla eta bideoak igo ahal izateko lotuta zegoen telefonoarekin, baina arazoak konpondu direla, eta gaurko grabazioa, gaur bertan ez bada, biharko igota egongo dela.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du 2023ko urriaren 26an, egindako osoko bilkuraren akta.

### **2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.**

Alkateak galdetzen du ea inork zerbait adierazi nahi ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Gilen Garciak 475/2023 Dekretuaren, «Komunikazio-aholkularitza – Adaki», harira informazio eskara bat egin zutela eta aurrekontua helarazi zaiela eta ikusi dutela aurrekoaren pareko aurrekontu eta zereginak direla, baina hala ere, aintzat hartuta, aurrekontuaren heren bat estrarako dela, azalpenak eskatu nahi dute horien inguruan.

Alkateak azaltzen du gastu horiek badaezpadakoak direla, prentsa aurrekoak egiten direnerako atzean jartzen den fondoak, Udalaren irudiarekin, eta atrileak-eta jartzeko, baita egon daitezkeen beste gastu batzuetarako badaezpadako partida bat dela.

Bestelako adierazpenik edota galderarik ez daudenez, Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

### **3.- Vialine enpresak kudeatutako 2023ko trafiko isunei buruzko Alkatetzaren dekretuen kontrola.**

Alkateak galdetzen du galderak edo iradokizunak ote diren gai honen harira.

Ez dago ez galderarik ez iradokizunik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

### **4.- Onartzea, hala badagokio, Lasturko kanalaren inguruko historia eta ingurumen azterketarako bekako oinarriak.**

Alkateak gaia azaltzen du.

Gai hau Ekonomia Sustapena eta Landa Eremuaren Batzordeak, 2022ko azaroaren 22an, eta Kultura eta Euskara Batzordeak, 2023 urtarrilaren 16an, aztertu zuten eta aldeko irizpena eman zuten.



2023SPLE0013  
13.bilera: OHIKOA 2023/11/29

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzen ditu Lasturko kanalaren inguruko historia eta ingurumen azterketarako bekako oinarriak.

Gilen Garciak adierazten du gai honen harira eta Next Funtzen dirulaguntzekin lotuta, aurreproiektu bat zegoela eta enpresarekin negoziatzen ari zela, batez ere ondakinen kontuarekin. Turismo Batzordean, ezta ez beste inon ere, horren berririk eman ez direnez, horren inguruko informazioa nahiko luketela, ez une horretan, baina bai ahalik eta azkarren.

Alkateak adierazten du eskaera jasota gelditzen dela.

#### **5.- Onartzea, hala badagokio, 2023ko Enplegu planaren kudeaketa-gomendioaren hitzarmena.**

Alkateak azalpenak ematen ditu Elgoibarko, Soraluzeko, Mendaroko, Deba eta Mutrikuko Udalen arteko kudeaketa-gomendioaren hitzarmenari buruz, Debabarreneko lurralde eremuan Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako enplegua eta toki-garapena sustatzeko proiektuak gauzatzeko.

Gaia Lurraldetasun Batzordeak azaroaren 22an eginiko bileran aztertu zuen, eta aldeko irizpena eman zuen, eta alkateak galdetzen du ea hitzarmena irakurtzea nahi ote den, ala zuzenean bozketara pasatzea nahi ote den.

Gilen Garcia adierazten du gaia Lurraldetasun Batzordean aztertu zela eta ba datozela, dena den, euren ustez, gaia Gizarte Politikako Batzordeari zegokion, eta ez Lurraldetasun Batzordeari.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzen du, Elgoibarko, Soraluzeko, Mendaroko, Deba eta Mutrikuko Udalen arteko kudeaketa-gomendioaren hitzarmenari buruz, Debabarreneko lurralde eremuan Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako enplegua eta toki-garapena sustatzeko proiektuak gauzatzeko.

#### **6.- Onartzea, hala badagokio, «Elgoibar, Mutriku, Deba eta Mendaroko udalen arteko lankidetzaren hitzarmena, Mendaroko adinekoentzako udal ostatu zerbitzuak kudeatu eta erabiltzeko.»**

Alkateak gaia aurkeztu du. 2022ko azaroan Mendaron kokatuta dauden 3. adinekoentzat hiru apartamentu (ostatu zerbitzua) erabili ahal izateko hitzarmena sinatu zen. Bertan, 4. baldintzan "ordaintzeko modua" akatsa zegoen, eta, orduan inor ez zen konturatu, baina orain aipatutako akatsa zuzentzeko, beste hitzarmena egin eta sinatu behar da.

Gizarte Politika eta Berdintasun Batzordeak, azaroaren 14an eginiko bileran aztertu zuen, eta aldeko irizpena eman zuen.

Udalbatzak, aho batez onartzen du «Elgoibar, Mutriku, Deba eta Mendaroko udalen arteko lankidetzaren hitzarmena, Mendaroko adinekoentzako udal ostatu zerbitzuak kudeatu eta erabiltzeko.».

## **7.- Onartzea, hala badagokio, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aurkeztutako mozioa: «Gutxieneko pentsioa 1080€.»**

Alkateak mozioa irakurtzen du:

*«EHPM-MPEH mozioa. Udaletan, foru-aldundietan eta EUDELen aurkezteko.*

*EHPMk — (Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak) zuengana jotzen du. Debako Udalaren osoko bilkuran mozio bat onar dezazuen, gure funtsezko aldarrikapenetako bat babestuz: pentsiodun guztiek gutxienez 1080 euroko diru-sarrerak izatea bermatzea, 14 ordainsaritan.*

*Idazki honekin batera doakizu Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordearen aurrean egin eta aurkeztu dugun txosten laburtua, Bertan eskatzen eta justifikatzen dugu errebindikazio hori, nola gauzatu eta zenbatesten dugu kostua. Txostena eskari horrekin hasten da:*

*EHPM-MPEHk egindako txosten honen bidez, 2023rako gutxieneko pentsioa 1080 eurotan ezartzeko gure berehalako eskaria bultzatu nahi dugu. Eskaria hori Estatuko gobernuari eta EAEko eta Nafarroako gobernuari zuzentzen diegu, azken horiei, gainera, eskatzen diegu, gaur egun 783 eurotan dagoen gutxieneko pentsioa finkatzen ez den bitartean, gutxieneko pentsio hori 1080 eurora arte osa dezatela hamalau ordainsaritan.*

*Txosten honekin urrats bat gehiago ematen dugu gure eskariaren azalpenean, eta EAEko eta Nafarroako beharrezko aurrekontuaren zenbatespen ekonomikoa kalkulatu dugu.*

*Gainera, txosten horretan adierazten dugu eskaera hori premia sozial urgentea eta justiziazkoa dela, erakunde publikoek herritarrei bizi-baldintza duinak bermatzeko behar diren erabakiak hartzeko betebeharra dutelako; baldintza horiek, lanetik etorritako diru-sarrerak ez duten adineko pertsonen eta pentsiodunen kasuan, gutxieneko diru-sarrera nahikoak bermatu behar dituzte.*

*1080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeak nabarmen murriztuko luke pentsioetan dagoen genero-aldea. Bizi-kostuaren igoeraren arabera pentsioak ez errealizatzean ondorioak nabarmenak dira, txostenaren 13. orrian ikus daitekeen bezala: egiaztatzen dugu azken urteetan (2011tik 2023ra) LGSa 641,40 eurotik 1080 eurora igo dela, baina gutxieneko pentsioa 601,40 eurotik 783 eurora baino ez da igo. Pentsioak soldata geroratuak dira, zalantzarik gabe, eta horien zenbatekoa zuzenean lotuta dago jasotzen diren soldatekin; beraz, gutxieneko pentsioak ere LGS izan behar du erreferentzia gisa. Onartezina da 2011n Gutxieneko Pentsioan LGSren %, 93,7 izatea eta 2023an % 72,5 izatea.*

*Gaur egungo bizi-kostuaren hazkunde esponenzialaren testuinguruan, gero eta pentsiodun gehiagok eten egiten dituzte etxebizitza osasungarria eta beren beharretara egokitutakoa, elikadura osasuntsua, osasuna eta arreta eraginkorra bermatzea mendekotasuna artatzeko dituzten beharrak arintzeko, etab. Gaur egun EAEan, 167.718 pentsiodunek 1080 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte pentsioengatik, eta horietako gehienak emakumeak dira.*

*Gutxieneko pentsioak, aldagai guztietan, emakume izena du. Izan ere, genero-arrakala horren aurrekari dira soldaten desberdintasuna eta emakumeak alde bakarretik esleitzea ordaindu gabeko edo gaizki ordaindutako lanari ugalketaren eta zaintzaren esparruan.*

*1080ko aldarrikapen horrek duela bost urte baino gehiagotik gure mobilizazioetan parte hartu duten milaka pertsonen ematen dioten zilegitasuna du.*

*Ondorioztatzen dugu ez dagoela arrazoi ekonomiko edo politikorik ez egiteko, eta ezin dugu egun bat gehiago itxaron.*



2023SPLE0013  
13.bilera: OHIKOA 2023/11/29

*Horregatik, Debako Udalaren osoko bilkurari honako erabaki hau eskatzen diogu:*

1.- EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari demandatu, 1080 eurora arte osatu dezaten pentsiodunen gutxieneko pentsioa 14 ordainsaritan, 2023ko urtarrilera arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

2.- EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari jakinaraztea Udal honen osoko bilkuran hartutako erabakia, 2023ko azaroaren 29 egun honetan.

*Euskal Herria, 2023ko urria.»*

*Alkateak azaltzen du EAJ-PNVk ezezkoa emango diola mozio horri, arrazoi hauek direla eta:*

- Alde batetik, Europako Karta Soziala aztertuta ez da inon agertzen 1080 izan behar duenik gutxieneko pentsioa..

- Kotizazioak Estatuko Gizarte Segurantzaren Kutxara egiten dira. Gizarte Segurantza da egokitzapenak gauzatu behar dituen. Estatuaren eskumena da, eta ez Eusko Jaurlaritzarena edo Nafarroako Gobernuarena. Eta eskumenez eta Gizarte Segurantzaz ari garela gogoratu eskualdatzeko dagoela oraindik Gernikako Estatuak Euskadiko Autonomi Erkidegoaren esku uzten duen Gizarte Segurantzaren Erregimen Ekonomikoaren Kudeaketa.(18.2.b art.)

- “Bizitza duin bat eraman eta bizitza publiko, sozial eta kulturean aktiboki parte hartzera ahalbidetuko dien baliabide nahikoen bitartez.” horrekin ados daudela, eta euskal instituzioak aspaldi ari dira berebiziko ahalegina egiten pentsio baxuenak osatzeko, ekitaldi honetan 100milioi euroren bueltako ahalegina suposatuko duena. 2022ko abenduan Eusko Legebiltzarrean RGI legea izenez ezagutzen den legea onartu zen eta gehiengo zabalarekin, eta lege garantista horren baitan pentsio txiki guztiak konplementatzen dira, ez soilik jubilatuenak, esklusioa ekiditeko.

*Horrela, gai honen inguruan hauek dira EAJ-PNVren konpromisoak:*

1. Pentsioen erosketa ahalmena bermatzea.
2. Gizarte Segurantzako erregimen ekonomikoaren kudeaketaren eskumena lortzea.
3. Lanbideen Arteko Gutxieneko Soldata eta Gutxieneko Pentsioaren artean sortu den arrakala murriztea.
4. Pentsio baxuenak osatzen jarraitzea.
5. Alargunen oinarri erregulatzaila igotzen jarraitzea.

*Arazoi horiek direla eta, EAJ-PNVk ezezko botoa emango diola pentsiodunak aurkeztutako mozioari, eta mozio hori onartuko ez balitz, mozio alternatiboa aurkeztuko dutela.*

*Gilen Garciak adierazten du udal gobernu osatzen duen bigarren alderdiaren iritzia jakin nahiko dutela.*

*Orain Debako ordezkariak adierazten du abstentziora joko duela.*

*Eta bigarrenik, mozio honen harira, Pentsiodunen Mugimenduaren ordezkariekin izandako bileran*

osoko bilkura osatzen duten hiru alderdiaren ordezkariak mozioarekiko adostasuna adierazi zuten, eta hiru egun beranduago, hiru alderdi horietako batek, mozio alternatibo bat aurkezterakoan, edo gezurra esan zuten, edo berak oso gaizki ulertu zuen bertan adierazi zena. Zintzotasun falta nabarmena sumatzen duela. Gauzak bere horretan uzteko maniobra bat dela, protagonismo nahia dela. Eragile bat etorri zela aldarri batekin, eta horrek lanketa bat merezi zuela, hau da Debako Udalak onartu behar duen adierazpen bat baldin bada, kalean dagoen aldarrikapen bat baldin bada, beste bilera bat, beste bi edo beste hiru egin zitezkeen, zerbait adostu eta aurrera atera. Eragile batekin bilera bat egin, bertan ezer ere ez azaldu, eta handik hiru egunetara kontra mozio bat aurkeztea, pena ematen dion jokabidea dela, eta EH Bilduk mozioaren alde eman behar duela botoa.

Bozketa egin ondoren, hau da emaitza:

«Gutxieneko pentsioa 1080€.» mozioaren aldeko botoak: 6; kontrako botoak: 6; abstentzioa: 1

Berdinketa gertatu denez, alkatearen kalitateko botoa erabakigarria da, hortaz, ez da onartzen Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aurkeztutako mozioa: «Gutxieneko pentsioa 1080€.»

Alkateak EAJ-PNVk aurkeztutako mozio alternatiboa kontra-mozioa irakurtzen du:

«PENTSIOEI BURUZKO MOZIOA

Hau eskatzen diogu Debako Udalari:

1.- Estatuko Gobernuari eskatzea Eusko Legebiltzarrak 2018ko martxoaren 1ean gehiengo zabal batez adostu zuen akordioan xedatutakoari erantzunez, pentsio sistema nahikoa eta jasangarria bermatzea, elkartasunean eta gardentasunean oinarrituta, pentsio duina jasotzeko eskubidea betez eta egiazko finantzaketa iturriak direla medio pentsio duin eta aurreikusgarriak ematen direla bermatuz.

2.- Estatuko Gobernuari eskatzea gutxieneko pentsioa duintzeko esfortzua egin dezala sistema elikatzeko diru sarrerak handitzera bideratutako neurriak hartuz, sistemaren beraren gastuetan eraginez eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata erreferentziatzat hartuz.

3.- Estatuko Gobernuari eskatzea, lehen puntuan aipatzen den akordioa gogoan eta Euskadiko pentsiodunen egoera hobetzera begira ezinbestean bete behar den baldintza dela aintzat hartuz, urratsak ematen has dadila Segurantzaren Sozialaren eskuduntzak Euskadiko erakundeei transferitzeko, Gernikako Estatutuaren 3/1979 lege Organikoaren 18.2. artikuluan eta Aldi baterako 5. Xedapenean jasotzen denarekin ados.

4.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea Eusko Legebiltzarrak 2022ko abenduaren 22an gehiengo zabal batez onetsi zuen Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legearekin ados, pentsiorik baxuenak osatzen jarrai dezala hiritargoaren bizi baldintza duinei eusteko eta prestazio hau Europako estandarretara egokituta dagoela bermatuz.

5.- Estatuko Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari ezagutzera ematea Udal honetan adostu den akordioa.»

Bozketa egin ondoren, hau da emaitza:

EAJ-PNVk aurkeztutako pentsioei buruko mozioaren aldeko botoak: 6; kontrako botoak: 6; abstentzioa: 1

Berdinketa gertatu denez, alkatearen kalitateko botoa erabakigarria da, hortaz, Udaltzarak onartzen du EAJ-PNVk aurkeztutako pentsioei buruko mozioa.



**8.- Onartzea, hala badagokio, EAJ/PNV alderdiak aurkeztutako mozioa: «Euskal zaintza eredu sendo, eraldatzaile, feminista eta komunitario baten aldekoa.»**

Alkateak mozioa irakurtzan du:

«Historian lehen aldiz, joan den urriaren 29an Zaintzaren eta Laguntzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen, eta testuinguru horretan, ekimen asko antolatu dira Euskadin zaintza-eredu berri bat aldarrikatze. Osasun sistemaren eta euskal gizarte zerbitzuen kalitatea eta sendotasuna funtsezkoak izan dira Covid-19aren pandemiaren aurkako borrokan; eta, orain, itun sozial eta politiko berri bat adosteko garaia da, gure zaintza eredu lidergo eta erantzukizun publikoan oinarrituta eraldatzen jarraitzeko, sektorearekin, eragile nagusiekin eta inplikaturako gizarte erakundeekin lankidetzan.

Gaur egun, Gipuzkoan, lau pertsonatik batek (% 22,9) 65 urte edo gehiago ditu. Gipuzkoako biztanleriaren zahartzea da gaur egungo erronka nagusietako bat, eta hortik eratortzen da zahartze aktibo eta osasungarria sustatzeko beharra, baita estrategiak garatzeko ere, adineko pertsonak pairatzen dituzten mendekotasun eta bazterkeria egoeren gorakadaren aurrean.

Testuinguru horretan, debarrok eragile konprometituak izan behar dugu printzipio komunitarioetan oinarritutako balio-gizarte baterantz joateko, eta modu aktiboan parte hartu behar dugu zaintza-eredu erreferentzial bat eraldatzen eta martxan jartzen, zaintza eskubide unibertsala eta, pertsona, gizarte-ongizateko eredu berriaren ardatz nagusia izango dena.

Horregatik guztiagatik, Debako Udalak konpromisoa hartu du Euskadiko zainketen aldeko itun sozial berrian parte hartzeko, eta zainketa-sistema sendo, eraldatzaile, komunitario eta feminista defendatzeko. Horretarako, ardatz estrategiko hauek garatzeko konpromisoa hartzen dugu:

1. **Pertsona, zainketa-eredu berriaren ardatza.** Arreta pertsonalizatua, unibertsala eta kalitatezkoa izateko eskubide subjektiboa bermatzea.
2. **Zainketen profesionalizazioa.** Zaintza-modu formal eta informaletan diharduten langileen lan-baldintzak sendotzea eta hobetzea, elkarrizketa sozialaren bidez eta laguntza-sistema indartuz.
3. **Etxeko zaintza lehenesten duen sistema.** Adineko hamar pertsonatik zortzik etxean bizitzen jarraitu nahi dute. Horregatik, etxeko zainketak hobetzea eta berrikuntza txertatzea beharrezkoa da, zaintza profesionalizatuz, familia-zaintzaileari lagunduz eta komunitatearen parte-hartzea indartuz.
4. **Sistema inklusiboa eta berdinzalea.** Zaintzaren ardura emakumeek izan dute historikoki eta, horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu desberdintasun-egoera hori konpontzeko neurriak hartzea feminismo konprometitu eta berdinzale batetik, baita arraza edo jatorri etnikoarekin lotutako diskriminazioekin amaitzeko ere, lanerako segregazioa eta desberdintasun sozialak murriztuz.
5. **Koordinazio soziosanitarioa areagotzea.** Gizarte eta osasun sistemen arteko lankidetzak handiagoa eta hobea izan behar da, erabiltzaileek arreta integrala jaso dezaten euskal administrazioaren aldetik, mendekotasuna, dibertsitate funtzionala, gaixotasun mentalen bat

*edota gizarte bazterkeriako egoeraren bat izan.*

6. **Komunitatea indartzea.** *Giza garapen iraunkorrerako gune gisa komunitate-loturak indartzea, gizarte-kohesioa eta zaintzarekin konprometitutako erakunde, elkarte eta pertsonen parte-hartzea areagotuz.*
7. **Zaintzen iraunkortasuna eta kalitatea bermatzea.** *Eraginkorragoak izanda kudeaketa hobetzea, horretarako baliabide ekonomiko berriak aztertuz eta egungo zainketa-ereduaren bideragarritasuna eta etorkizuneko ongizatea bermatuko duten neurri fiskal berriak hartuz, belaunaldien arteko konpromiso berrituarekin.*
8. **Zaintzen elkarlaneko gobernantza.** *Zaintza publiko eta komunitarioko eredu bidezkoago, berdintasunezkoago eta erantzunkideago baten alde egiteak berekin dakar elkarlaneko gobernantzako mekanismo berriak antolatzea: publiko-pribatua, publiko-publikoa, publiko-komunitarioa.»*

Gilen Garciak adierazten du biharko greba orokor bat deituta egongo ez balitz, itsu-itsuan emango zutela mozio horren aldeko botoa, erabiltzen diskurtsoa ona dela, eraldatzailea, feminista, komunitarioa, behin eta berriro aipatzen diren kontuak direla, eta badirudiela denok barku berean gaudela, baina, aurreko puntuan esan den bezala, herri eragile batzuk (sindikatuak, Deba eta Itziarko talde feministak, etab.) lanketa bat egin dute greba deialdi bat egiteko, eta, pentsiodunen mozioarekin gertatu den bezala, iruditzen zaiela protagonismo nahia dagoela horren atzean. Ez da inolako lanketa egin eragile horiekin, greba bat deituta dago eta horren aipamenik ere ez dela egiten. Gatazka bat sortzen zaiela: mozioa onartu edo biharko jarduna, herritarren ekarpenekin, aldarriekin eta proposamenekin eginda. Mugimendu feministak herri akordio bat proposatzen duela horren inguruan, mozioan erabiltzen diren hainbat kontzeptuekin bat egiten duena. Zaintza publiko eta komunitarioko eredu aipatzen dela, baina ikusita Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren bidea, normalean, laguntzen bidez estaltzen dela egoera, hau da eredu familiarista pribatua non ez den bermatzen zaintzaileen eta langileen eskubideak.

Aurreko agintaldian esaten bazieten mozioak eta adierazpenak ez dutela ezertarako balio, baina euren ustez bai balio dutela, baina lanketa bat egin behar dela. Esate baterako, mozioan Deba aipatu ere ez dela egiten, hortaz, norekin landu nahi da egiten den proposamena? Ea harremanetan jarri ei diren mugimendu feministarekin edo sektorean jardun duten langileekin. Iruditzen zaiela mozioak gabezia dezente duela, eta beste lanketan batzuetan egon beharko ginela, eta ez gure aurpegia zuritu nahian.

Alkateak erantzuten du ez diola onartuko hori aurpegi zuriketa bat denik, eta, bigarrena, mozioak ez duela zer ikusirik greba feministarekin. Horren zerikusia duela zaintza eredu berriarekin. Debako Udalak, Foru Aldundiak egiten dituen dirulaguntza batzuei eskaria egin duela zaintza eredu berri hau martxan jartzeko, eta datozen 12 hilabeterako lanketa aurreikusia dago hilabetez hilabete, hori martxan jartzeko eta Udalean lantzeko, eta horren harira dator mozioa, eta ez biharko greba feministaren harira. Ez dutela greba feministarekin bat egiten, zaintza eredu berriarekin baizik.

Horiek argituta, bozketa egiten da, emaitza honekin:

Euskal zaintza eredu sendo, eraldatzaile, feminista eta komunitario baten aldeko mozioaren aldeko botoak: 6; kontrako botoak: 6; abstentzioa: 1

Berdinketa gertatu denez, alkatearen kalitateko botoarekin erabakigarria da, hortaz, Udaltzak onartzen du Euskal zaintza eredu sendo, eraldatzaile, feminista eta komunitario baten aldeko mozioa.





2023SPLE0013  
13.bilera: OHIKOA 2023/11/29

Aritz Larrañagak hitza eskatzen du adierazteko eskertzen dela osoko bilkuran aurkeztutako mozio baten bidez jakitea Udalak Foru Aldundiarekin elkarlanean ari dela, baina harritzen diona dela mozio bat sartzea Gizarte Politikako Batzordean ezar aipatu gabe. Aurreko agintaldian ere urrats batzuk eman zirela Foru Aldundiarekin, oraingo udal gobernua ere horretan ari dela jakin dutela, baina eskertzeko izango zela gardentasunez Gizarte Politikako Batzordean hitz egitea, eta eskertzekoa izango zela ere, horrelako mozio bat ahalik eta babes handiarenarekin onartzea nahi bada, EH Bildurekin lantzea eta adostasunetara heltzea, aurreko agintaldian egin zen moduan. Mozioaren harira, faltan sumatzen duela zaintzari buruz hitz behar bada zaintza mahi bat edo antzekoa ez osatzea eragile guztiarekin, non eurek ere parte izango direla, eta ez bakarrik mozio bat onartzeko.

### **9.- Onartzea, hala badagokio, UEMAk aurkeztutako adierazpen instituzionala: Euskararen Nazioarteko Eguna 2023.**

Alkateak, adierazpena irakurtzen du:

*«Euskara eta bidea*

*Euskararen Nazioarteko Eguna, 2023.*

*Adierazpen instituzionala*

*Euskaldunak gara, euskaraz gara, eta hori da gure herrien nortasunaren ezaugarri esanguratsuenetakoa: udalerrri euskaldunak gara. Mendeetan zehar gure hizkuntza zamatu duten debeku, eraso, jazarpen eta erabakien gainetik, aurten bertan ezagutu ditugun datuek argi diote: oraindik ere gure herritarren gehiengoa euskalduna da, beste inon baino sendiago dago gurean euskara, eta udalerrri euskaldunak gero eta gehiago dira. Gurean ere asko aldatzen ari da errealitatea, ordea, eta egiteko konplexuak daukagu aurretik; hala ere askoren artean urte askoan egindako lanaren uzta ageriko da: ezagutzak gora egin du, gero eta euskaldun gehiago gara, eta horrek ekarri du udalerrri euskaldunen lurgunea handitzea, besteak beste.*

*Euskararen Nazioarteko Eguna, urtero, zer garen gogoratzeko eguna izan ohi da. Herri honek munduari ematen dion kolorea euskara dela esateko eguna. Harrokeriarik gabeko harrotasun eguna. Ospakizuna. Aurten, ordea, lanbrotuta ditugu bazterrak. Hilabetez hilabete ainubera kondenatu nahi izan gaituzte. Behin eta berriro. Euskararen aurkako erasoek ez dute etenik izan, eta epaitegietatik heldu den oldarraldiak marra gorriak gainditu ditu, euskararen beraren ofizialtasuna ere zalantzan jartzeraino.*

*Euskal jendarteak eta euskal erakundeek urte askoan kontsentsu zabalarekin egindako bidea mugatu nahi izan dute. Udalerrri euskaldunek bertako hizkuntza biziberritzeko eta euskara dagokion lekura itzularazteko egiten ditugun urratsak debekatu nahi dizkigute. Gazteleraren makulupean ibiltzera eta bigarren mailakoak izatera behartu nahi gaituzte. Baina euskara da gure herriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko beharra daukagu udalerrri euskaldunek.*

*Izan ere, erakundeei eredu izatea dagokigu. Herritarren eredu. Ahalegin eta konpromiso handiari esker, larreakoa nahi zuten hizkuntza noranahikoa izatea lortu du herri honek, eta ezin dugu*

*zabaldutako bidean atzera egin. Berdatzen hasitako basoa berriro lehortzea onartu. Horregatik, udalerrri euskalduna garen heinean, adierazpen honekin bi konpromiso ezagutarazi nahi ditugu. Batetik, euskararen biziberritzean eta herritarren hizkuntza eskubideen defentsan eredu eta bide-urratzaile izateko konpromisoa. Bestetik, euskarak ezinbestekoa duen lege-babesa lortzeko lanean gainerako erakundeen eta eragileen bidelagun izateko konpromisoa.*

*Gaur egungo atakari aurre egiteko benetako lege-orubea behar baitu euskarak, erdaren erauntsiari aurre egiteko egiturazko neurri sendoak behar dituen bezala. Dagokigun arduratik, horiek lortzeko lanerako eta elkarlanerako ordua dugu orain erakundeok, inoiz baino gehiago. Euskararen lurgunea handitu dela esateaz gain, euskararen lurgunea sendotu ere egin dela ikus dezagun hurrengo urtean. Izan gaitezten eredu. Lehenetsi etorkizuna. Erakutsi eguzkia ainubean denari. Eman diezaiegun euskara eta bidea herritarrei.»*

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartzen du Euskararen Nazioarteko Eguna, 2023. Adierazpen instituzionala

## **10.- Gai zerrendatik kanpoko gaia: Onartzea, hala badagokio SAREk aurkeztutako mozioa: «KONPONBIDERA KO GILTZAK»**

Mozioa irakurri aurretik, alkateak proposatzen du mozioak dituen hiru puntuak banaka bozkatzea, eta puntu bakoitzari dagokion aldeko edo kontrako erabakia hartzea.

Ondoren mozioa irakurtzen du:

*«Espetxe-politikak bilakaera garrantzitsua izan du azken hiru urteetan. Batez ere, 34 urte iraun duen urruntze-politikaren amaierarekin.*

*Baina, nahiz eta orain arte alde batera utzitako eskubideen aitortzan nabarmen hobetu den, oraindik ere Fiskaltzak eta auzitegiek, Auzitegi Nazionalak zehazki, urrun jarraitzen dute espetxe-politika justu batek lortu beharko lituzkeen helburuetatik.*

*Ez du inolako justifikaziorik salbuespenezko politika juridikoak bere horretan jarraitzea, eta, beraz, konpromiso irmoa eskatzen diegu eragile politiko, sindikal eta sozialei, espetxeetan oraindik pairatzen den salbuespenezko egoera horri amaiera emateko.*

*Bide honetan, idatzi honi erantsia doan “KONPONBIDERA KO GILTZAK” deituriko manifestua kaleratu du SAREk jendarte zabalaren atxikimendua lortu asmoz.*

*Hau horrela izanik Udalbatzari honako mozioa onartzea eskatzen diogu:*

**MOZIOA:**

*1.- Debako Udalak, elkarbizitzaren baitan aurrera egin ahal izateko, “KONPONBIDEAREN GILTZAK” deituriko manifestua bere egiten du eta atxikimendua ematen dio.»*

Puntu honen aldeko botoak?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du lehen puntua. Manifestua akta honen eranskinean jasotzen da.

*«2.- Udal honek, urtarrilaren 13an Bilbon egingo den mobilizazioan parte hartzeko deialdia egingo du.»*

Puntu honen aldeko botoak? 6. Puntu honen kontrakoko botoak? 7

Udalbatzak, 6 boto alde eta 7 boto kontrarekin, ezetzi egiten du mozioaren bigarren puntua.

*«3.- Debako udalak, balkoi nagusian, U13ko mobilizazioaren berri ematen duen kartela ipintzea*



2023SPLE0013  
13.bilera: OHIKOA 2023/11/29

*onartzen du, modu honetan Sareren aldarrikapen hauekin bere adostasuna adieraziz.»*

Puntu honen aldeko botoak? 6. Puntu honen kontrakoko botoak? 7

Udalbatzak, 6 boto alde eta 7 boto kontrarekin, ezetzi egiten du mozioaren hirugarren puntua.

Gilen Garciak eskatzen du azaltzea mozioaren puntuak banaka bozkatzeko arrazoiak. Egia dela, aurreko bilera batean komentatu dela, eta horrela eginda, gutxienez, mozioaren lehen puntua onartzeko akordio bat lortu zela, baina ondo legokeela, bozketa horrela egiteko arrazoiak azaltzea. Udal batzak hartzen dituen erabakietan alde praktikoa bat dagoela (bandera bat jartzea, deialdia luzatzea, ...), eta beste alde sinbolikoak, eta bozketa horrela eginda lortu da, zati batean behintzat, adostasun batera heltzea, baina, seguruenik, bilera bat eginez gero, aukera gehiago leudekeela. Beste mozioetan azaldu den bezala, benetan akordio bat lortzeko borondatea dagoenean eta bilerak egiten badira aukera dagoela akordioak lortzeko, bestela, oso zaila dela, eta, bere ustez, hori estrapolablegarria dela mozio guztietara.

Alkateak azaltzen du SAREko ordezkariekin bilera bat izan zuela, eta bertan eman ziotela mozio honen berri, hiru puntu horiek zeintzuk ziren adierazi ziotela, eta horren aurrean, nahiz eta bere alderdikideekin hitz gabe egon, bere iritzia eman zela: manifestuarekin ados zegoela, baina uste zuela beste bi puntutan arazoak egon zitezkeela, eta, horrela, mozioa bere osotasunean bozkatzuz gero, ez onartzeko arriskua zegoela, eta horregatik, proposamena izan zen puntuz puntu bozkatzea.

### **11.- Eskari eta galderak.**

Alkateak galdetzen du ea inork baduen eskaera edo galderarik.

Gilen Garciak azaltzen du hiru aipamen egin dituela:

11.1.- Gaur bertan lanpostuen zerrendaren buruzko bilera bat izan dela, eta, bere ustez, bertan hitz egin diren hainbat puntuen harira udal gobernuak azalpenak eman behar dituela EH Bilduri, baina, batez ere, herriari. Horrela galdetzen du nola egin behar duten lan, zer asmoak dituzten, zer plangintza duten, eta zeren baitan. Euren bere lana egingo dutela, baina, dagokiela informatuta egotea eta bere iritzia ematea. Orduan denbora guztian atzetik ibili behar hori ez dela euren lana, baizik eta udal gobernuari dagokiola jakinaraztea eman behar dituen pausoak zeintzuk diren. Ez dutela uzte herri honek aurrera egongo duenik euren bizkarra emanez edo nagusikeriarekin jokatzu.

11.2.- Azaroaren 16an Legebiltzarrean onartu zen Debarreneko ponentzia. Aurreko agintalditik datorren ekimena dela, eta berak pertsonalki rol berezi bat jokatu zuela, Deba Udalak ordezkatzeko zuten heinean, ea, batez ere, eskualdeko garapen agentziaren ordezkari gisa, eta bertan ordezkaturik zeuden hiru alderdiak (EAJ-PNV, PSE, eta EH Bildu) elkarrekin joan zirelako. Gaurko bileran formei buruz asko hitz egin dela, eta pasa den agintaldian esfortzu berezi bat egin zela udalbatzan ordezkari zuten beste bi alderdiekin gaiak jorrazteko, kasu horretan etengabe informazioa emanez DEBEGESAn bilerak egin eta gero, eta Legebiltzarreko alderdiekin izandako bileren ostean. Detaileak ere gure jarduna egiten dutela, eta adierazi nahi

duela udal gobernutik ez zuela jaso ezta jakinarazpenik ere egun horretan deialdia zegoenik, eta ponentzia onartu eta hurrengo egunean sare sozialetan alkateak adierazi zuela berri pozgarri zela, horrekin bat datozela, baina pena ematen diela ikusirik Deban egin zen lana hori lortzeko, sare sozialen bitartez horren berri izatea.

11.3.- Prozedura aldetik, eta horiek ez dira detaileak, herri administrazio bat garenez, prozedura bata jarraitu behar dira, legeak horrela agintzen duelako, eta besteen eskubideak bermatu behar direlako. Horren harira, lehen gaia da Gazako larrialdirako laguntza, kaletik heldu zaiela gaia atzeratzen ari dela EH Bildugatik, kontua denean eurek proposatu zutela hori nola egin behar zen, prozedurak horretarako daude, gau egin den bazela, gaia urgentziaz sar daiteke gai zerrenda, bozeramaile batzordea deitu daiteke, baina ez azalpenak ematen hasi egia ez den zerbaiten inguruan.

Bigarrena, azaroaren 25rako adierazpen bat onartu behar zen. Konpromisoa hartu zen bozeramaileen batzordearen bilera bat deitzeko. Azaroaren 25a pasa zen, eta bozeramaileen batzordearen bilerarik ez da egin, eta, bertan ez da ezer landu. Hare okerrago, komunikazioarekin hain tematuta zeuden batzuk, adierazena onartu aurretik, haien sare sozialetan publikatu egin zuten. Uste dutela hobeto jokatu behar dela, eta gauzak txukunago egin prozedurari dagokionean.

Eta, azkenik, hirugarren aldia da informazioa eskatu izan dutela, osoko bilkuren aktatan jasota daude, eta erantzunik ez dute jaso. Horrela, galdetzen du ea nola nahi duten informazioa eskatzea, idatziz, erregistroaren bidez egin behar ote duten, epeak bete daitezten?

Alkateak erantzuten dio, berak ere jakin nahi duela nola jaso nahi duen eskatutako informazioa. Idatziz? Berak ahoz erantzun diola, eta informazioa eman zaiola, ez bazaio gustatzen jasotako informazioa ez dela eman ez delako, baizik eta ez duela informazio osoa jasotzen dagoen tokian dagoelako. Litekeela emandako informazioa ez izatea berak nahiko zukeen beste, baina informazioa eman zaiola. Horregatik, berriro ere galdetzen diola ea nola jaso nahi duen eskatutako informazioa. Idatziz nahi badu, idatziz eman diola hemendik aurrera.

Gilen Garciak erantzuten dio hori bere irakurketa dela, eta, seguruenik, atzera egin beharko duela etorkizunean. Ez dela berak gaur egun duen posizioaren kontua. Informazio eskubidea badutela, eta udal gobernuak dela prozedura kontu asko saltatzen ari dena, eurek kontuan hartu gabe, eta gero, informaltasun bat behar denean, edo gai gatazkatsua denean, orduan bai, denon arazoa da eta adostu behar da, baina, bestela, ez da denon arazoa. Gobernantza ereduak da. Mozioetan, gobernantza ereduak, komunitatea, hitzak erabiltzen dira, baina kontua da nola egiten den hori, nola zaintzen den komunitatea, gobernantza nola ulertzen den, bai gobernuaren aldetik, bai gobernutik kanpo daudenen aldetik eta baita kalean dauden aldetik. Eta hori da udal gobernuak azaldu behar duena, ez dela bere gabezia bat, bere posizioa aldatu delakok. Berak garbi duela zein den bere posizioa, baina aldarrikatzen duela dagokiena, eta hiru aldiz eskatu behar badute, arazoa ez dela eurena, alkatearen baizik.

Alkateak erantzuten du ez duela uste hiru aldiz eskatu izan zaionik, eta osoko bilkuran eman zaizkion erantzunak ez bazaio baliozkoak iruditzen, eskatzen diola adieraztea ea nola jaso nahi duen erantzunak, idatziz nahi baditu, horrela jasoko dituela hemendik aurrera.

Beste aztergairik ez dagoenez, 19:00tan alkateak amaitutzat ematen du Osoko Bilkura.

Alazne Txurruka Allika  
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra  
Idazkaria





2023SPLE0013  
13.bilera: OHIKOA 2023/11/29

## UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2023/13

EGUNA: 2023/11/29

### ERANSKINA

**10.- Gai zerrendatik kanpoko gaia: Onartzea, hala badagokio SAREk aurkeztutako mozioa.**

#### «KONPONBIDERA KO GILTZAK» manifestua.

«GILTZA. SARRAILA. ZULOA. ATEA. ZABALDU-ZARRATU.

Giltzak ireki eta ixteko balio digu: etxea, kotxea, kutxa, giltzarrapoa, kaiola, espetxea. Preziatu duguna giltzapean gordetzen dugu: dirua, bitxiak, paperak, sekretuak, oroitzapenak, nostalgiak.

Giltzari esker sartu eta irten egiten gara: aurrera egiten dugu. Edo atzean geratzen gara, gotorturik.

GILTZA ZERTARAKO, GAKOA.

Zarratu: Iraganeko minak, gorrotoak eta biolentziak atzean uzteko, inoren sufrimendua ahaztu edo gutxietsi gabe, baina bai iraganari begiratu ahal izateko, oraindirako eta etorkizunerako irakaskuntza gisa. Akatsetatik ikasiz ez errepikatzeko, norgehiagokak giltzapetu eta iraganean ainguratzen gaituzten lehiak ixteko.

ZABALDU: KONPONBIDEARI ATEAK IREKITZEKO.

Eta horretan gabiltza, aurrera urrats sendoak eman ahala, ateak zarratu eta zabalduz. ETaren desagerpenarekin, isolamenduaren eta urruntze politikaren amaierarekin, biktima ezberdinen oinazera hurbilduz, distantziak murriztuz eta banatzen gaituzten hormak eraitsiz.

Bidean aurrera urratsak ematen jarraitzeko ordea beharrezko zaigu iraganean betikotzen gaituzten ateak itxi eta euskal preso, iheslari eta deportatuen aferari irtenbidea ematea, bai eta gutxieneko akordio baten bila, biktima guztiei tratamendu justu eta berdina ematea ahalbidetuko duten ateak irekitzen jarraitzea.

Oraindik ordea, ezin izan dugu iraganaren atea behin betiko itxi. Oraindik, euskal presoek eskubideek urratuak izaten jarraitzen baitute eta, era berean, ez da lortu biktima guztiei bidezko tratamendua emateko helburua.

Presoek legearen bidea jorratzeko ateak ireki ahala, badirudi ugaritzen ari direla legedia ezartzeko oztopo diren sarraila berriak: salbuespenak giltzarrapo izaten darrai, etxerako ateak itxita jarraitzen du.

Aldiz, aspaldian jendarte elkarbizitzarako ateak irekitzeko lanetan dabil, giltza ugari eskutan hartuta, pertsona eta eragileen arteko harremanak, adostasunak eta desadostasunak, modu eraikitzailean egituraturaz.

Bide horretan jarraitu nahi eta behar dugu: giltzei eraginez jendartearen motorra piztu eta aurrera egiteko. Pertsona guztien motorrak martxan jartzen lagundu nahi dugu: kaleetan, esparru politikoan, sindikalean eta sozialean... hainbeste urtetako konfrontazioaren ondoren gizarte gisa nahi dugun etorkizunari ateak irekitzeko.

Konponbidearen eta elkarbizitzaren ateak parez pare zabaldu nahi eta behar ditugu. Eta horretarako presoek etxerako atea zabalduko duen/duten giltza/k eskuartean hartu behar ditugu.

Ez gara zigorgabetasuna eskatzen ari, zigorrak betetzeko legeak berak eskaintzen dituen aukera desberdinei ateak irekitzea baizik. Espetxe eredu berri, humanizatu eta justuago batean sakonduz, euskal presoek dagozkien eskubideen jabetza aitortuz, herri honetan sufritu duten pertsona guztiak aintzat hartuz eta biolentzia ezberdinen biktima diren guztiak errespetatuz.

Esandako guztiagatik, adierazi nahi dugu prest gaudela konponbiderako, elkarbizitzarako, biktima guztien minen errespeturako eta presoek etxerako biderako ateak irekiko dituzten giltzak gure eskuetan hartzeko, lege arruntak dion bidetik, hamarkadetan zehar aplikatzen ari zaizkien salbuespenak betiko baztertuz.

Ahaleginak egingo ditugu ate hauek lehenbailehen ireki daitezzen eta, horrela, herri hau osatzen dugunok elkarbizitza oinarri izango duen etorkizun bat eraiki dezagun.»